

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN ETA SEPEEn IZENA EMAN

Izena eman

Indemnizazioa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan* eta SEPEEn izena eman

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta SEPEEn izen ematea kontratua bukatu eta biharamunean bertan egin daiteke eta ondorengo 15 egunetan (epe hau baino beranduago eginez gero, eskubideak sortzen direnetik eskaera egunera arteko denbora galdua izanen da).

Izen ematea osatzeko honakoak beharko dituzu:

1/ Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena eman eta behar diren agiriak eraman:**

- Lehen aldiz izena ematen baduzu, nortasun agiri bat, gizarte segurantzako zenbakia (jadanik Espainian lan egin baduzu), titulu edo lan egiaztagirien kopiak, eta zure ohiko bizilekuaren egiaztagiria.

- Jadantik izena eman baduzu langabezia zerbitzuan, orduan izen ematea sarean egin dezakezu***.

Behin izena eman eta langabetu txartela jasoko duzu: DARDE- Documento de Alta y Renovación de la Demanda de Empleo

*http://www.navarra.es/home_es/servicios/ficha/6576/gestionar-la-demanda-de-empleo

**http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Informacion/Servicio+Navarro+de+Empleo/Donde+estamos/Oficinas+de+empleo/Pamplona+-+Rotoxapea.htm

***http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/PrevioOfiElect.htm

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN ETA SEPEⁿ IZENA EMAN

Izena eman

Indemnizazioa

2/ Tokiko SEPE-ra joan (hitzordua on-line eska dezakezu*) eta honako agiriak eraman:

- Langabezia sariaren formularioa beterik **
- Langabetu txartela -le DARDE Nafarroako Enplegu zerbitzuak ematen duena- eta indarrean den nortasun agiri bat
- Zure enplegatzaile ohiaren ziurtagiria, kanporatze gutunaren kopia, kontratu mugatuarena
- DP U1 formularioa
- Saria jasotzeko bankuko agiria
- Familia egoera egiaztatzen lagun dezakeen dokumentu oro (familia liburuxka, dibortzio agiria...). Zure egoera Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eguneratu behar duzu (DARDE-ak finkatutako epeetan) telefonoz edo Internetez***.

Indemnizazioa / langabezia saria:

SEPE-k kalkulatzeko du langabezia sariaren zenbatekoa. Horretarako azken 180 egunetako kotizazioak kontutan hartzen ditu.

Honelakoa izango da zure langabezia saria:

- Lehen 180 egunetan -> erregulazio oinarriaren %70
- 181. egunetik aurrera -> erregulazio oinarriaren %50

Haur kopuruaren eta eragin anitzeko errentaren adierazle publikoaren**** (IPREM) arabera, badago gutxieneko eta gehieneko zenbateko bat

*<https://sede.sepe.gob.es/citaprevia/solicitudCitaPrevia.do>

**https://www.sepe.es/contenidos/personas/prestaciones/pdf/impreso_solicitud_contrIBUTIVA.pdf

***<http://www.cfnavarra.es/prm/OficinaElectronicaEmpleo/index.htm>

**** https://www.sepe.es/contenidos/personas/prestaciones/Cuantias_anuales.html

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN ETA SEPEⁿ IZENA EMAN

Izena eman

Indemnizazioa

Adibidez, haurrik ez duen baten kasuan

- Ezin da hileko 501.98€ baino gutxiago izan
- Eta ez ditzake hileko 1098.09€ gainditu

Langabezia sariaren silumatzailea:

<https://sede.sepe.gob.es/dgsimulador/introSimulador.do>

Langabezia indemnizazioak **eskuratzeko azken 6 urteetan 360 egunez lan egin eta kotizatu duzula egiaztatu beharko duzu**. Langabezia eskubideak emateko jadanik erabili ez diren kotizazio garaiak hartuko dira kontutan.

Langabezia sariaren iraupena azken sei urteetan kotizatu duzun garaien arabera izanen da:

Kotizazio iraupena egunetan // Prestazioaren iraupena

360tik 539ra	120
540tik 719ra	180
720tik 899ra	240
900tik 1079ra	300
1080tik 1259ra	360
1260tik 1439ra	420
1440tik 1619ra	480
1620tik 1799ra	540
1800etik 1979ra	600
1980tik 2159ra	660
2160tik aurrera	720

Saria hilero ordainduko da, hilabatea pasata.

2018ko abuztua